

Lotu aske izateko

«Gauza berriak ez dira jende zaharrarekin hasi behar, eta orain gauza berriak abiatzeko garaia da. Zuena». Emaila idatzi zidan Joxek. 2014a zen, ekainaren 8a. Beti bezala, eskuzabal, aitakeriarik gabe, konfiantza emanez. 11 urte joan dira. Gauza berriak abiatzeko garaia zen. Eta da, beti da gauza berriak abiatzeko ordua munduberrigintzan gabiltzanontzat.

Nola abiatzen dira gauza berriak, baina? Gutxienez bi auzi ditu barrenean galdera horrek: bata, zer den geure belaunaldiari eta ondorengoei pentsatzea dagokiguna. Zeren gainean pentsatu behar dugun eta zer pentsamendurekin pentsatu behar dugun asmatzea. Hau da, zein da galdera gaur eta hemen eta guretik. Eta bigarrena: gauza berriek, berri izanagatik ere, oinarria behar dutela, lurra, airean eraiki eta hai-zeak alderrai eramango ez bagaitu.

Haustea eta jarraitzea. Genealogia. Memoria eta desira. Gakartzan bidea eta egiteke duguna, ze, Joxek sarri aipatu ohi zuen bezala, «dara-bilgun bideak eramango gaitu».

Eta bideak ekarri zigun Azurmendi eta lehen aldiz irakurtzea *gertakizun* gertatu zitzaigun. Inarrosaldi bat, crochet bat bularrean, esnatze bat: zeure buruak, zeure intuizio eta bizipenek, gorputzaldi eta gogoe-tek, denek zentzu bat har zezaten gramatika bat ulertzen hasi ginen. Esperientzia inizatiko bat, fundazionala. Geroago Angela Davisek edo Sarah Ahmedek eragingo zigutenaren parekoa. Baina Azurmendi lehena izan: lurra eta luarra. Eta luar horretan hartu dute lur ondo-rengo irakurketa, gogoeta eta ekimenek, batzuetan gozo eta bestectan kontrakarrean. Baina kondenu gaitu bere bidetik ibiltzen, dogmatismoen kontra, kontzientziaren askatasunaren alde, geure esperien-tziaren zilegitasunaren defentsan eta askatasunerako pentsatzen jarri baikaitu. Ezin diogu itzuri egin ondorengooi egiten digun galderari: nola jarraituko dugu askatasun horren gainean eraikitzen?

«Geure iraganarekin behar dugu solastatu, eztabaidatu. Tradizioa ikasten joatea da, aurrekoengandik ikasten eta desikasten. Desikasten ere bai. Iraganik ez duenak konfrontatu eta kuestionatzeko, etorkizunik ere ez du berak egiteko». Konfrontatzea, Azurmendik eta 56ko belaunaldiak gerraurrekoarekin egin zuen bezala. Kuestionatu, baina ez eten; jarraitu. Elkarrizketa etenik gabeko batean, eta, ahal dela, eztabaida eta auzi agortuak atzean utzita, nostalgiaren eta dogmatismoen tentazioari uko eginda. «Halako uhin bat aurreko balio sistemarekin etena bezala altxatzen da. Etena, alabaina, segida bat izaten da nolabait une berean».

Zer da egiten dena, belaunaldi batek naziotasunari buruz euskararen aldeko hautua egin duenean, arrazaren alde egin zuen beste belaunaldi baten aurka? Ideien sistema guztia aldatzen da. Balioen sistema guztia. Euskaltzaletasuna arrazan datzala, edo euskarari datzala edo ideia antipatriarkalean datzala, ez da iritzi kontua soilik: balioak eta munduaren ikuspegiak daude jokoan.

Haustea, jarraitu ahal izateko.

«Nik espero dut benetan feminismoak ekarriko duela gogoeta berri bat abertzaletasunari buruz ere», erantzun zidan hiru urte berandua-go, ziurren pixka bat kontrakarrera, egin nion galdera bati. Eta, bi urte geroago, idatziz jarri zuen jarraipen puntua:

Euskararen kausa edo feminismoarena ez dira absolutuak eta haienganako eraspena ez erlijio fanatiko bat. Baina bai kolektibo baten hautu justifikatuak eta konpromiso sendoak, ez modako afizioak soil. Euskararen hautua edo feminismoarena deritzeguna, ertz asko duten hautu konplexuak izaten dira beti: askatasunaren, justiziaren, berdintasunaren aldeko borroka barnebiltzen dituztenak. Harremantasan gurutzatuen unibertso bat.

Izan ere, «abertzaleak ez du herria bakarrik pentsatzen, gizadi osoarekin konprometitzen da». Eta askatasun horren gainean eraikitzen jarraitzeko galdera bera da orain eta lehen: zer da gizadi osoarekin konprometitzea eta zein da konpromiso horren gure modua gaur eta hemen? Azurmendik, Rikardo Arregiren hitzak oinarri hartuta, hone-l dio: euskalgintza gizagintza da, munduberrigintza. Eta nago esaldi hori baliagarri zaigula askatasuna eta askatasunerako pentsatzen jarraitzeko, gizatasunaren disputa bete-betea bizi dugun garaiotan. Luar jori eta emankorra utzi digu Azurmendik, eteteko bezainbeste, lotzeko. Lotu aske izateko.